

HOME / GAIK / LITERATURA / [BIDEOA] NEREA BALDA IDAZLEAK 'AZPIMARRAK' ELEBERRIA PLAZARATU DU



(argazkia: Kultur Sharea)

DONOSTIA LITERATURA NABARMENDUAK NAFARROA PORTADAN

[BIDEOA] NEREA BALDA IDAZLEAK 'AZPIMARRAK' ELEBERRIA PLAZARATU DU

By KulturSharea / 2023-05-19

Azpimarrakz beteriko bigarren eskuko liburu bat du abiapuntu Irurtzongo idazlearen lan berriak.

Nerea Baldak (Irurtzun, 1975) *Azpimarra* izeneko eleberri laburra aurkeztu du gaur Donostiako Udala Liburutegian. Azpimarrakz beteriko bigarren eskuko liburu bat du abiapuntu lanak, "nire lagun batek bigarren eskuko liburu bat erosi zuen eta bertan ikusi zuen aurreko jabea aspaldiko ezagun bat zela", kontatu du idazleak Erein argitaletxearekin egindako aurkezpenean. Gertaera hori polita iruditu zitzaion idazle nafarrari eta hortik abiatuta liburuaren istorioa sortzea erabaki zuen. Beraz, bigarren eskuko liburu batekin eta aspaldiko bi ezagunekin ondu du *Azpimarrak* eleberria.

Egileak azaldu duenez, "aspaldiko bi ezagun hauek, Selva eta Andreu, pertsonaia nagusiak dira eleberri honetan". Kontakizuna, hala ere, Selvaren istorioarekin hasten da eta horrek eraman zuen idazlea Andreurengana. Bi pertsonaia hauen ikuspuntuak tartekatzen dira liburuan eta horrela kontakizun nagusia osatzen joaten da. Selvak ama izan nahi du, baina ezusteko batek kolokan jarri dio erabakia. Autobusean, liburu bat topatu du, azpimarrakz beteta, eta horren bitartez aurkitu du Andreu, gaztetan ezagutu zuen mutila. Punta s'Arenellako itsasargia da bien abiapuntua; iraganera gerturatu ditu, eta, halaber, elkarren zalantza eta minetara.

Gaiari dagokionez, maitasunak hartzen du garrantzi handiena, baina "maitasuna zentzu zabalenean", azpimarratu du Baldak. "Bikote harremanak, baina horrek ekartzen dituen erabakiak, zalantzak, beldurrak, familiaren eragina, amatasuna, aitasuna... izan dira gero, idazterakoan, garrantzia ere hartu duten gaietako batzuk".

Liburu honen proiektuarekin Ramiro Pinilla eleberri laburren bosgarren lehiaketa irabazi zuen Baldak iazko irailean eta Uxue Rasquin Ereineko editorearekin egindako lanketa baten ondoren aurkeztu du lana idazleak.



Zabaldu:

Tags: Azpimarrak, Erein argitaletxea, Euskal Literatura, Nerea Balda

Navigation bar with date 2023/05/19 and category EUSKARA, EUSKAL KULTURA ETA EUSKAL HERRIA



Lege oharra

albisteak@kultursharea.eus

Publizitatea



LANKIDETZAK

